




MUSIKA

Ludwig maitea

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Norbaiti zer musika gustatzen zaion galdetuz gero eta “Beethoven” erantzunez gero, bere musika gustuak benetan eza-gutu gabe geratuko gara. Musikagile alemaniarra ongiatz eta gaizkiaz haratago dago (musikalki). Musika gustatzen bazaizu, Beethoven gustatzen zaizu, nahiz eta zure estilo gustukoena pop-a izan. Eta bizirik zegoenean miresmena piztu bazuen, denboraren poderioz bere irudia eta legatua handitu besterik ez dira egin. Askotan, jenioen lana haien mozorroa izaten da, haien maskara. Ludwig van Beethovenen kasua ez da hori. Kasu honetan lanak ez du sortzailea estaltzen. Edonork kantatu lezake bere musika –filmetako eta tele-sailetakoinu-banda gisa erabili da eta moldaketa rockeroak ere izan ditu–, baina, gainera, ondo ezagutzen dugu bere aurpegia –garai hartan selfiak existitu balira baino erretratu gehiago daude–, bere bizitza eta amodioak –edo desamodioak–, bere maniak, bere jenio txarra, gertaera frogatuak, pasadizoak, eta noski, asmatutako elezaharrak. Musikaren izar bat izan zen, izaten jarraitzen du eta



izango da.

Abenduaren 16an bere jaiotza-ren 250. urteurrena beteko da. Beraz, oroitzapen-urte handia izan da aurten-go, pandemiak lausotu duen arren. Baina, hala eta guztiz ere, munduak bere artea ospatu du; batez ere bi hirik: Bonnek (Alemania), non jaio eta hazi zen, eta Vienak (Austria), non helduaroa igaro zuen, hil arte.

Beethoven artista pentsalariaren lehen adibideetako bat da eta agian ospetsuena. Beethovenen bidez, artea ekintza-indar gisa ulertzeko modu bat

zabaldu zen Europan. Bera ez da mugatzen musika ederra sortzera: bere obra kontzientziarako deia da, eraldaketa sozial eta pertsonalerako deia. Horregatik, ez du zentzurik Beethoven –eta Schubert– vienar “klasizismoaren” parte kontsideratzen jarraitzeak. Beethoven, ondorio guztiekin, erromantikoko bat da, hau da, Aro Demokratiko berriko gizona, gizon modernoa. Bere aurretik musikaren helburua musika izatea bazen ere, besterik gabe, alemaniarrarentzat musika gizateria osoa barne hartzen duen prozesu historiko baten parte da. Zientziaren aurrerapena, tiraniaren aurkako borroka, natura eta herriarekiko maitasuna, dogmatikoa ez den erlijio unibertuala, artearen gaitasun eraldatzailea dira bere ideien oinarriak.

Beraz, premisa horietatik abiatuta, urteurren honetan Beethovenen musika entzuten dugun hurrengoan, pentsa dezagun melodia ahaztezinak, konposizio-eskema berritzaileak edo nortasun basati baten isla baino askoz gehiago esaten ari zaigula. Beethovenen arteak pentsarazteko balio behar digu, batez ere atsekabeko garai hauetan. ●

AMASA-VILLABONA  Villabonako Udala

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN**

EUSKARAK 365 EGUN

EUSKARALDIA